
Gizartearen loturak aztergai: aniztasunaren eta kohesio sozialaren elkargunez

Iraola Arretxe, Iker¹

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
iker.iraola@ehu.eus

I

Iruñeko jardunaldiko hitzaldien gako nagusiak aurkezten dira testu honetan. Salvador Cardús, David Thunder eta Txoli Mateosk kohesio sozialaren eta aniztasunaren gaiak aztertu zituzten, Kataluniako edota Euskal Herriko kasuei erreparatuz. Oro har, hiru hizlariak, ikuspegi eta kokapen desberdinetatik abiatuz, gizarte kohesioa eta aniztasuna elkarrekin erlazionatu beharra azpimarratu zuten, eta iritzi desberdinak izan zituzten nazio identitateari aitortu beharreko garrantziari dagokionez.

Giltza-hitzak: Katalunia. Nafarroa. Euskal Herria. Kultura-aniztasuna. Identitatea. Nazioa.

Diskurtso publikoan askotan aipatzen diren baina gutxitan definitzen diren kontzeptuak izan genituen hizpide Iruñeko saioan: gure jendartean aniztasuna eta kohesioa, hain zuzen. Kontzeptuon izaera zabalaren eraginez, askotan definizio gabezia erortzeko arriskua izan ohi da, ezeri erreferentzia zehatzik egiten ez dion aniztasunaren aldarrikapenera, hain zuzen. Baina, bestetik, gaur egun balio sozial nabarmenak ere badira biak, gizarte mailan modu positiboan hartzen direnak, eta beharrezko zerbait moduan ere ulertzen direnak, egungo gizartearen ezaugarri izatearekin batera (gizarteak, berez, askotarikoak dira; eta, halaber, gutxieneko kohesio bat ere izan behar dute). Zentzu horretan, Euskal Herriaren etorkizunari begira, garrantzitsua da gizartearen aniztasunari behatzea, eta berau kohesio sozialarekin nola erlaziona daitekeen aurreratzea. Finean, Euskal Herriko jendeen arteko loturez hausnartzea, eta elkarrekin loturarik ez duten talde isolatuaren irudia alboratzea.

Horretarako hiru aditu izan genituen kontzeptuekin lanean, ikuspegi teoriko nahiz jatorri geografiko desberdinetatik Euskal Herriaren aniztasunaren eta kohesioaren azuzie behatzeko. Lan horretan Salvador Cardús Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko soziologia irakaslea, David Thunder Nafarroako Unibertsitateko ikertzailea Kultura eta Gizarte Institutuan, eta Txoli Mateos soziologoa eta EHUko irakasle ohia izan ziren. Katalan, irlandar eta euskal herritar bat,

hurrenez hurren. Jarraian, hitzaldion xehetasun guztiak arakatu baino, zertzelada nagusi batzuetan jarriko dugu arreta, gure ustez Eusko Ikaskuntzaren kongresu-prozesuaren testuinguruan nabarmenak gerta daitezkeenak.

Salvador Cardúsek batik bat kohesio sozialari behatu zion, afera horrek gurea bezalako gizarte ireki eta aniztetan duen esanahia arakatz, beti ere Kataluniako errealitatea (eta azkenaldiko gertaerak, bertako prozesu independentistari loturik) erreferentzia gisa hartuta. Irakasleak kohesio sozialaren argipen kontzeptual bati ekin zion, eta kontzeptu hori marko nazional zehatz bati loturik doala gogorarazi zigun. Izan ere, kohesio sozialaz ari garenean, zein lurraldeko biztanleria kohesionatu nahi da? Nazioaren definizioa auzitan dagoen gurea bezalako testuinguruetan, beraz, ezinbestekoa da kohesio soziala zein marko nazionalerik ari den esplazitu egitea.

Horrekin batera, kohesio sozial kontzeptura gerturatzeko bi bide nagusi daudela azpimarratu zuen Cardúsek. Lehenik eta behin, eta agian gerturatzeko nagusia dena, kohesioa ezberdinkeriarekin nahiz bazterkeriarekin lotzen duena, horien aurkako gisa: gizarte kohesionatuak lirakeke ekitate maila altua dutenak. Irakaslearen ustez, baina, kohesiora gerturatzeko ohiko bide hori mugatua izan daiteke, gizartearen aniztasuna kontuan hartzen ez duen heinean.

Kohesio sozial kontzeptura gerturatzeko bigarren bidea, bada, kontzeptu hori kapital sozialarekin lotzen duena izango genuke. Bigarren gerturatzeko horren arabera, kohesio soziala aztertze, berdintasuna baino, jendarte bateko sare komunitarioak kontuan hartu beharko lirakeke, eta baita kontzeptuaren adiera subjektiboa ere; hots, ea gizarteko kideak talde horren partaide sentitzen ote diren. Hortaz, kohesioa ulertzeko pertenezia sentimenduak ere ekuazioan sartu beharko lirakeke, ez berdintasun sozioekonomiko hutsa.

Ondorioz, kohesioaren eta aniztasunaren arteko hartu-eman zaila eta konplexua dela nabarmendu zuen Cardúsek. Maila orokor batean, kohesioa eta aniztasuna elkarren aurkakotzat hartzen dira, eta ez dirudi gizarte oso kohesionatu batek aniztasun maila altua izango lukeenik. Ildo horretatik ulertu behar dira, Cardúsen irudiko, multikulturalismoaren aurkako ikuspegi batzuk, kultura-aniztasun horrek kohesio soziala zalantzan jartzen duela uste baitute halako ikuspegiak.

Irakasle katalanak, baina, gerturatzeko horren arriskuak azpimarratu eta bestelako ikuspegiak defendatu zituen. Kohesio

soziala ezin liteke, bada, kohesio nazionalaren sinonimo gisa hartu, eta nazio identitatearen alorrean ere (beste aniztasun ugartan bezala) aniztasunaren aldagaia sartu beharra defendatu zuen. Ideia hori identitatearen mailara eramanda, Cardúsek gizabanakoaren dimentsioa azpimarratu zuen, eta diferentziarako eskubidea baino, indiferentziarako eskubidea aldarrikatu zuen.

Irakasleak Kataluniako egoera sozialaren zertzelada batzuk emanaz amaitu zuen bere hitzaldia. Haren ustez, Katalunian kohesio soziala bertako gizartearen ezaugarri garrantzitsua da, eta azken aldiko prozesu politikoak ez du errealitate hori ezeztatu. Cardúsek Kataluniako gizartearen dentsitatea azpimarratu zuen, hango kapital sozialaren ugartasuna, eta kasu horretan kohesio soziala nagusiki gizarteko entitateen (mota askotariko elkarte, mugimendu eta sareen) ekarpena dela nabarmendu zuen. Horrekin batera, Kataluniako identitatearen nolabaiteko ahuldadea ere azpimarratu zuen, ezaugarri positibo gisa: ezaugarri zurrinagoak baino, hizkuntza erromantze bat da bertako identitatearen muina. Cardúsen ustez, identitate ezaugarri ahulak abantaila dira kohesio sozialaren ikuspegiak.

Horren ostean, David Thunder ikertzaileak gaia filosofiaren ikuspegiak eta, batez ere, lurraldearen dimentsioa azpimarratuz aztertu zuen; eta kohesioaren adiera ugarien artean, lurralde kohesioa lehenetsi zuen. Izan ere, haren ustez lurralde loturak ekiditea ezinezkoa zaio gizakiari, lotura horiek gizakiaren izateari berari zentzua ematen baitiote.

Thunderrentzat, bada, kohesioaz hitz egiteko printzipio nagusi batzuk kontuan hartu behar dira, zeintzuen artean aurkitzen diren ordena sozialaren eraikuntzan era aktiboan parte hartzeko gaitasuna, komunitateak ongizate komuna auto-antolatzeke ahalmena izatea, nahiz legezaren errespetua. Hortik abiatuz, irlandarrak errepublikanismo konfederalaren aldeko apustua egin zuen, ikuspegi filosofiko moduan –eta ez proposamen politiko zehatz moduan– ulertuta. Haren ustez, kohesioaz ari garenean ezin da arreta gizabanakoan soilik jarri; ezinbestekoa da gizartean taldeak badirela ulertzea. Errepublikanismo konfederalak, beraz, gizarteko taldeen arteko akordioa izango luke ardatz, gizarte osoaren kohesioa helburu.

Lurralde kohesioaren xedea ardatz hartuta, Nafarroako Unibertsitateko ikertzaileak, besteak beste, eredu konsoziatiboa aldarrikatu zuen, zeinaren bidez gizarteko talde esanguratsuek

sistema politikoan esku har dezatela bilatzen den, botere politikoa nolabait banatuz. Horrekin batera, eta filosofia liberalaren bidetik jarraituz, estatuaren monopolioaren kontra egin zuen, eta estatuaren eraginetik kanpoko gizarte zibila aldarrikatu. Finean, lurralde kohesioak uniformetasuna ekidin behar duela nabarmendu zuen ikertzaileak.

Hausnarketa hori Nafarroa Garaiko eremura ekarri zuen irlandarrak, Haren ustez, lurralde kohesioaren ikuspegitik eremu interesgarria da Nafarroakoa: lurraldearen izaera ulertzeko aniztasuna handia da, nazio atxikimendu desberdinen eraginez nagusiki; narratiba historiko desberdinak –are kontrajarriak– existitzen dira, lurraldearen egungo egoerari zentzu oso desberdina ematen diotenak; eta taldeen arteko konfiantza eza ere nabarmentzen da aspektu askotan. Egoera horretan, gaur egun gizartearen jada existitzen diren eremu komunetatik abiatzeko beharra azpimarratu zuen Thunderrek, gizarteko taldeek partekatzen dituzten eremuetatik, horrela lurralde kohesiorako proiektu komunak eraiki ahal izateko.

Ondoren Txoli Mateos soziologoak eztabaida Euskal Herrira zabaldu zuen. Jardunaldiko bi gaien artean –kohesioa eta aniztasuna–, Mateosk bigarrenean jarri zuen arreta, eta bizikidetzaren kontzeptuarekin elkarlotu zuen. Adierazi zuenez, kontzeptuok askotan arerioa despregiatzeko erabiltzen dira, eta horrela uler daiteke bizikidetzaren bezalako ideiekiko egon daitekeen mesfidantza. Soziologoaren aburuz, askotan diferentziaren onarpena bezalako aldarrikapenak gizartearen dauden gatazkak ezkatuzko erabiltzen dira, edo beste zenbait gai ez aipatzeko mekanismo gisa. Euskal Herriaren kasuan, bada, aniztasunaz aritzerakoan bertan nazio identitate desberdinak daudela onartzea ezinbestekoa da, eta eremu publikoan ageriko errealitate hori zein gutxi aipatzen den azpimarratu zuen, harridura puntu batez, Mateosk.

Aniztasuna identitatearen afera korapilatsuarekin lotu zuen ondoren soziologoak. Aniztasuna balio moral bat baino *de facto*zko errealitatea izanik, gakoa aniztasunaren gaia etorkizuneko proiektu soziopolitikoekin elkarlotzea litzateke. Soziologoaren hitzetan, norbere identitateari –nazio identitatea barne– eusteko aukera funtsezkoa da aniztasunaz ari garenean, eta ez soilik justua delako, gizartearen kohesioarekin lotura ere baduelako baizik. Identitateak jendarteko partaide sentitzearekin lotura du eta parte hartze soziopolitikoaren areagotzen du. Beraz, Mateosen aburuz, identitatea eremu

pribatura mugatzeko saiakerak antzuak edo faltsuak dira: dela identitate guztiak ez direlako berdinak eta ezin direlako parekatu, edo dela estatuak identitateen aurrean ez direlako neutralak.

EHUko irakasle ohiak auzi hori nazionalismoarekin lotu zuen. Haren ustez, nazionalismo orok ditu beste nazio egitasmoak onartzeko zailtasunak; eta agerikoa izan da hori, Euskal Herriaren kasuan, estatu-nazionalismo espainiarraren nahiz frantsesaren kasuan, zein euskal nazionalismoaren kasuan ere. Areago, bigarrenean zentratuz, Mateosk azaldu zuen abertzaletasunak nazio identitate aniztasuna onartzeko zailtasunak izan dituela bere bilakaeran. Zentzu horretan, garrantzitsua litzateke azpimarratzea berez nazio identitateen aniztasun horrek ez duela demokraziarako zailtasunik eragin behar. Soziologoak nabarmendu zuenez, helburua nazio sentimendu desberdinak eremu publikoan eroso sentitzea izan behar luke, eta horretarako egitasmo partekatuek sortzea.

Hirugarren hizlari honek hezkuntza sistema aipatuz amaitu zuen bere hitz hartzea. Mateosen aburuz, identitateen aniztasunaren auzia eta horiekiko jarrerak eskolan lantzea funtsezkoa da. Kohesioa helburu legitimotzat hartuz, gizarteak identitate partekatu baten beharra ere baduela gogorarazi zuen, eta eskolan identitate zibiko eta ireki hori bultzatu behar dela, euskal herritar arduratsuek sortzeko helburuarekin.

Euskal Herriko kasuari loturik, aniztasuna, kohesioa eta identitateak behatzeko modu ugariak izan ziren hizpide, beraz, Iruñeko jardunaldian. Maila analitikoan arazoak sortzen dituzten kontzeptuak dira, eta gizarte zientzietan ere oso eztabaidatuak dira. Hiru hizlariak, ikuspegi eta kokapen desberdinetatik abiatuz, gizarte kohesioa aniztasunarekin erlazionatu beharra azpimarratu zuten, eta baita kontrako bidea egitearen ezinbestekotasuna ere, hots, aniztasunak kohesio sozialaren dimentsio kontuan hartzea. Nolabait, biak balio positiboak izanik, gizarte mailan kohesioaren eta aniztasunaren osagaiak erabili eta nahastea defendatu zuten. Desberdintasunak ere izan zituzten hizlariak, ugariak; eta horien artean nazio auziari emandako garrantzia izango genuke. Zentzu horretan, Salvador Cardúsék eta Txoli Mateosk aniztasunaren eta kohesioaren marko nazionala esplizitu egitearen beharra azpimarratu zuten; izan ere, zein lurralde unitateko aniztasuna kontuan hartu nahi den argi izan behar da, beste ezeren gainetik, eta baita zein gizarte kohesionatu nahi den ere. Hori egin ezean, identitate gaitan bere burua

neutralizat agertu arren, errealitatean bere nazio egitasmoa bultzatzen duen estatuaren markoa gailenduko baita.

Jardunaldian hiru hizlariekin batera, gerturatutako gainontzeko herritarrek ere parte hartu zuten. Taldeka bilduta, hizlari zuzendutako galderak adostu zituzten, eta interesgarria da hausnarketa horiei ere behatzea. Luzatutako kontzeptuen artean, gatazka, imajinario kolektiboa eta komunitatea azpimarratu ziren, besteak beste. Gatazka, gizarte ororen ezaugarri izanik, bere zentzu negatibo zein positiboan (aldaketen bultzatzaile gisa), lurralde baten barruko loturez hausnartzean gatazka nola bideratu daitekeen mahaigaineratu zen; areago, kohesioarekin eta aniztasunarekin batera gatazkaren dimentsioa eta kontuan hartzea ezinbestekoa dela nabarmendu zen.

Aldi berean, taldeen ekarpenetan komunitate kontzeptuak zentraltasuna eskuratu zuen. Kohesioak komunitateen arteko loturen auziari erantzuten dionez, bizikidetzat eratu ahal izateko gutxieneko baldintzak izan ziren eztabaidagai. Ildo horretatik, eta komunitateen arteko loturak nahiz talde desberdinen artean komunitate partekatu baten sentimendua hedatzeko bide gisa, imajinario kolektiboaren garrantzia ere azpimarratu zen. Komunitatea batek imajinario kolektibo nagusi bat dauka, atzera begirako kontakizun nagusi batekin eta aurrera begirako proiektuak ikur zehatzetan kondentsatzeko funtzioa duena. Imajinario hori, kohesioaren tresna ez ezik, aniztasunarekin ere lotura izan behar lukeela azpimarratu zen, horrela.

Euskal Herriko jendeen arteko lotura askotarikoak izan ziren aztergai eta hizpide. Aniztasuna bera, bat eta bakarra izan beharrean, anitza ere bada, eta konplexutasun horren erpin batzuk ukitu ziren Iruñean. Euskal Herriko jendeak askotarikoak dira, gizarte anitza da gurea, bestela ezin zitekeen izan eta. Baina aldi berean loturei eta elkarguneei ere behatu behar zaie, hauek ere anitzak izango direla jakitun.

Oharrak

1. Parte Hartuz ikerketa taldeko kidea.